

txintxarri



Erabakia hautestontzietara ekarriz

2.303 lasarteoriarrek eman zuten bozka igandeko galdeketan. / 6-9

TXINTXARRI

36ko testigantzak

Herritarrek emandako testigantzak eskertu ditu Islada Ezkutatuak taldeak / 3

Herritar ugari hartu zuen parte erraustegiaren aurkako elkarretaratze zaratatsuan / 5

Saskibaloiko errendimendu junior mailako neskak ezusteko ematetik gertu izan ziren / 12

2 mō betaurreko

Gama altuko progresibo
+
eguzkitako progresiboak

197€

www.multiopicasgipuzkoa.com f t e

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA
Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Babes ofizialeko 84 etxebizitza Zatarain eta Zabaleta-Berrin

Zabaleta-Berrin 64 BOE eta Zatarainen 22 BOE eraikitzeke bi partzela municipal adjudikatzeke baldintza-agiriak onetsi zituen udalbatzarrak, asteartean

Txintxarri

Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraiki nahi dituzten partzelen inguruko informazioa eman asmoz, prentsurrekoa eman zuen astelehen eguerdian.

Bertan jakitera eman zuten moduan, bi operazioen bidez Udalaren bi partzela adjudikatuko dira, horietan, babes ofizialeko 84 etxebizitza eraikitzeke. Zatarain eta Zabaleta berriko lur eremuetan eraikiko dira aipatu etxebizitzak.

Zataraingo lehenengo faseko lanak martxan dira, hura urbanizatzeko obrak, hain zuen.

Kasu honetan, 1.085 m²-ko partzela bat esleituko da, Construcciones Aburuza enpresak eraikiko dituen etxebizitza pribatuko 4 blokeekin batera.

Lur eremu horretan, Udalari dagokion zatian, babes ofizialeko 22 etxebizitza eraiki asmoz dira, trasteleku eta garajea izango dutelarik horiek guztiek.

Guztira eraikiko den azalera 2.266 m²-koa izango da, eta lizitazioko prezioa 851.475 eurokoa da.

Zabaleta-Berriko kasuan, berriz, bi partzela dira eta 64 Babes Ofizialeko Etxebizitza eraikiko dira bertan.

Lur eremu horretako partzelak, 1.218 eta 1.344 m²-koak dira bi etxebizitza-bloke eraikitzeke; bakoitzean 32, eta hauek ere, Zataraingoen antzera, garajearea eta trastelekua izango dute.

Horrekin batera, 14 eranskin izango ditu Zabaleta berriko partzela bakoitzak

Lur eremu honetan eraikiko den azalera 2.890 m²-koa izango dela jakinarazi zuen Jesus Zaballosek, eta horrekin batera, 2.747.335 euroan baloratua dagoela ere azaldu zuen.

Zabaleta-Berri eremuaren kasuan, esleipena egokitzen zaion enpresak, gutxienez 13 etxebizitza eskaini behar dizkio Udalari,



Etxebizitza berrien eraikuntza izan zuten mintzagai. TXINTXARRI

beren garaje eta trastelekuekin, eta 232.697 euro. Etxebizitza horiek, Lasarte-Oriako bizilagunei alokatuko zaizkie, Alokabiderek sinatutako hitzarmen baten bidez.

Hobekuntza moduan, Zabaleta Auzo-Elkartearen lokala prestatzea proposatu da, eta horretarako 90.000 euro erabiliko direla gaineratu zuen Zaballosek.

Hileko ohiko udalbatzarra

2016ko abenduaren 13an eta 2017ko urtarrilaren 10ean ospatutako batzarren aktak aho batez onartu ziren. Horretaz gain, aurrez aipatutako Babes Ofizialeko Etxebizitzak eztabaidarako gai izan ziren iragan astearteko ohiko udalbatzarrean. Babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke eta saltzeko xedez, Zatarain eta Zabaleta-Berri lur eremuak birpartzelatzeko proiektutik

90.000 EUROREKIN ZABAleta AUZO-ELKARTEAREN LOKALA PRESTATZEA PROPOSATU DA

eratorritako partzelen jabetza osoa adjudikatzeke baldintzen agiriak onartu ziren. Bi kasuetan, Zatarain eta Zabaleta-Berriko lur eremuen bozkaketan, 12 boto alde (7 PSE-EE, 3 LOAD, 2 EAJ), 3 abstentzio (EH Bildu) eta kontrako 0 boto izan ziren. PPko Alejandro Saenz ez zen joan.

Lasarte-Oriako elkartearen 'Sustraiak eta Hegoak' urtekari berriaren inguruan galdetu zuen EH Bilduk. Alkateari zuzendutako galderan, aldizkaria osatzeko kontuan hartu ziren irizpideak zeintzuk izan ziren argitzeke eskatu zuen. Azken edizio honek, 2016 urtean zehar Lasarte-Oriako 41 elkarte izan duten jardura jasotzea du helburu eta elkarte bakoitzak bere aurkezpen testua osatu du. Horren harira izan da EH Bilduren galdera, elkarte kopuruaren eta testuen hizkuntzaren inguruan azalbideak eskatuz.

Herritarren txanda iritsitakoan, Zatarainen jada egiten ari diren obrek sortutako malda baten kezua eraman zuten San Frantzisko kale amaierako etxeke bizilagunek; gehiegizko inklinazioa duen malda sortu izana egotzi zioten alkateari.



Asteartean aurkeztu zuen Aterpeak gaurko Udaberri Festaren egitaraua. TXINTXARRI

Ekintzez beteriko egitarauarekin udaberria ospatuko da gaur

Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, Udaberri Festa egingo da gaur, Lasarte-Orian

Maddi Noriega

Udaberri Festa ospatuko da, gaur, Lasarte-Orian, hirugarren urtez.

Aterpea Merkatarien elkarteak antolatuta, hamaika ekintza izango dira arratsaldean zehar herriko txoko ezberdinetan.

Etxeko txikienek, puzgarrietan arratsaldeaz gozatzeko aukera bat baino gehiago izango dute. Juan XXIII. plazan esaterako, arratsaldeko 17:30etatik iluntzeko 20:30etara izango dute puzgarrietan ibiltzeko aukera. Baina ez da aipatu leku hori izango puzgarrietaz gozatzeko, izan ere, ordutegi berdinean, Zumaburu elizako plazan eta Urko plazan ere puzgarriak izango dira Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek gozameneko.

Honekin batera, gerriak mugitu eta dantza aritzeko aukerarik ere ez da faltako.

Horrela, Amaia Gonzalez Caballero dantzariak, dantzan jarriko ditu haur eta gazteak. Bi saio eskainiko ditu; lehena, 17:30ean, gaztetxoentzako Funky ikastaroa emango du eta bigarrena, berriz, helduei zuzenduta, dantza latinoak ikasteko aukera izango da. Azken hau 19:00etan hasiko da.

Arratsaldean zehar, Udal Musika Eskolako trikitilariak Atsobakar auzoan arituko dira trikiti doinuak eskaintzen, eta ekitaldiekin amaitzeko, iluntzeko 19:00etan hasi eta 20:30ak bitarte, Gautxori Txaranga ibiliko da herriko kaleak alaitzen.

Antolatzaileek jakitera eman duten moduan, eguraldi txarra egingo balu, Loidibarren pilotalekuan egingo lirerateke aurrez aipatu ekintza horiek guztiak.

Lehen tailerra, Isla Plazan

Maiatzeko larunbat guztietan, herriko gaztetxoek hainbat tailer egin ahalko dituzte auzoz auzo.

Joan den larunbatean Isla Plazan aritu ziren, zapitxo edo mantarrak eskuetan era guztietako eskulanak egiten. Ederki asko aritu ziren hainbat neska-mutil.

Biharko tailerra Zabaletako plazan egingo dute, 'Eva' delako goma oinarri hartuz. Maskarak egiteko erabiliko dute.



TXINTXARRI



Urtero legez, herritarrek euren hondar aletxoak jartzen dute memoria historikoa azaleratzeko lanean. TXINTXARRI

Herritarrek emandako testigantzak eskertzen

Islada Ezkutatuak taldeak jo eta ke jarraitzen du 1936ko altxamendu militarrean eta hurrengo urteetan gertatutakoak eta ezkutatuak azaleratzeko lanean. Horretan biziki laguntzen dute herritarrek urtero ematen dituzten testigantzek.

Iñigo Gonzalez

Memoria historikoaren botilatxo mezuz eta testigantza betetzen jarraitzen du Islada Ezkutatuak taldeak, nekaezin. Lan eskerga horretan, baina, badituzte hainbat laguntzaile. Horien artean, urtero-urtero taldeko kideekin bildu eta euren bizipenak kontatzera animatzen diren herritarrek. Joan den larunbatean hamazazpi izan ziren aitortza beroa jaso zutenak.

Mailu Arruti Islada Ezkutatuakeko kideak egin zuen sarreratxo. Nabarmendu zuen "oso pozik" daudela elkarteko kideak: "Erakusketa iraunkorra jarri ahal izan dugu aurten udaletxeko harreran; oso kontentu gaude, benetan garrantzitsua dela uste dugulako".

Ostean, Jesus Zaballos alkateak hartu zuen hitza. Eskerrak eman zizkien ekitaldira joandakoei. 2007ko Memoria Historikoaren legearen garrantzia azpimarratu zuen, eta gaitzetsi Espainiako Gobernuak "memoria historikoa

berreraikitza bideratzen duen diru-kopuru eskasa". Datu batzuk ere eman zituen: "Espainia da, Kanbodia eta gero, hobi komun gehien dituen herrialdea: 114.000 pertsona desagertu inguruz ari gara hizketan".

Maribel Vaquero Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendariak azpimarratu zuen memoria ez dela "hasi eta amaitu egiten den zerbait", baizik eta "guztion artean egunero egiten dugun ariketa bat". Islada Ezkutatuak taldearen "lan bikaina" ere goraiatu zuen.

Akordeoi doinuak eta emozioak
Hitzak, akordeoi doinuak, eta, batez ere, emozioak. Horiek denak nahastu ziren ekitaldian. Joseba Tapiak, akordeoiak lagunduta, jarri zuen musika: 'Maitasuna helduko da' eta 'Madrilgo lagunak' piezak jo zituen.

Joxea Muguruza Islada Ezkutatuakeko kideak ere hitz egin zuen, herritarrei oroigarriak

banatu aurretik. Besteak beste, gogora ekarri zuen Jose Antonio Azurza herritarraren istorioa. Hemendik Bartzelonara joan zen, familiarengana, baina hiria altxatuen esku erori zenean Frantziara egin behar izan zuen ihes. Han, naziek atzeman eta Mauthausen-eko kontzentrazio-eremura eraman zuten. Gas kameretan eraila izan zen. Haren biloba Asunek ere hartu zuen parte larunbateko ekitaldian; hitz benetan hunkigarriak eskaini zizkion aitona zuenari.

Gero, aurten testigantzak eman dituzten herritarrek kristalezko botilatxo bana jaso zuten oroigarri gisa. Era berean, Islada Ezkutatuakek lanean daramatzan urteetan euren esperientziak partekatu dituzten herritarrek koadernotxo bana jaso zuten baita ere. Elkarrizketen transkripzioak irakurri daitezke horietan. Eta, amaitzeko, udaletxe berrian pintxo goxo batzuk dastatu zituzten larunbateko ekitaldira bertaratutakoek.

NEURE KABUZ



ASIER ODRIOZOLA

GURE ESKU DAGO

Joan den igandean gure esku egon zen galdera pare bati erantzuteko aukera. Lasarteoriatarren esku.

Aukerako hausnarketak asko dira eta idazketa honetarako espazioa txikia. Beraz, batzuk hain mendeko gauzkatzen titularretan doa nere mezua.

Lehenik esan nahiko lan-harremana dudala Gure Esku Dago plataformako kideekin, lanekoa bai, baina hurbilekoa.

Badakit ze ahalegin ari diren egiten gizartearen esku lanabes demokratikoa jartzeko, parte hartzea bultzatzeko eta goitik beherako "bermea bermatzeko" (balio beza hitz jokoak). Badakit, ikusten ditudalako eta haiek konpartitu dizkidatelako, zein muga eta arazo dituzten prozesu luze eta aldapatsu honetan.

"Erabaki nahi al duzu?" galdera soilari erantzuten hasita, erabaki beharrekoa edozer izanda ere, askok ezezkoa ematen du, erabakitzea erantzunkizun bat hartzea delako eta ardura hori besterengana jartzea nahiago duelako. Zer esanik ez, independentziari buruz galdera egiten bazaio.

Gizartea lokartuta dagoela esan zidan joan den igandean saltsa honetan duena eta ez duena jartzen ari den persona batek. Jendea nahiko ondo bizi da eta "status quo" delakoarekin konforme dago, beraz oso zail da eremu eta egoera ezezagunetara bultzatzea jende oldea, gizakia neurri haundi batean "kontserbadore" delako, erantsi zuen.

Arazoi handia duela uste dut. Gehiago esango nuke: uste dut galdeketarena ez dela gurean bapatean sortu den mugimendua, Kataluñaokoaren itzalean baizik eta hori somatzen ari da parte hartzean. Eta interes berezirik ez duten besteak alderdi politikoak dira. Batzuk nolabaiteko babesa eman diote galdeketari, baina ez dute euren militantziarik mugiarazi eta hori ere somatzen da botuemaile kopuru mugatuan. Ez da ordea aitzakia.

Erabaki nahi dugula diogu baina gero epel jokatzeko eta horren adibide perfektua naiz neroni (Lasarteko Gure Esku Dagoko Gorkak ondo dakien bezala). Hala ere, ego me absolvo.

DIJESTION Taldeko agentzia

NOAOA
BIDAIAK

Lasartetik irteera
Noaoaren laguntzarekin

POLONIA
Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte

Tel: 943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 LASARTE-ORIA



Maialen Lujanbiok, Ane Labakak eta Andoni Egañak agurra abestu zuten saioa bukatzeko. TXINTXARRI

Errimak dantzan eta bertsoan udaberrian

Denetarik osagaiak eduki zituen joan den larunbateko udaberriko bertso saioak. Manuel Lekuona kultur etxera gerturatu ziren herritarrek gogotik gozatu zuten hiru bertsolarien ateraldiekin eta herriko eragile desberdinen ikuskizunekin.

Iñigo Gonzalez

Ane Labakak ederki esan zuen agurreko bertsoan: "Dantzaten duen herria ez da inoiz hilko". Eta bertsoan egiten duena ere ez. Trikitixa zein panderoa jotzen dituen ere ez. Eta, nola ez, irri egiten duena ere ez. Esaldi horiei jarraiki, Lasarte-Oria ez dago hiltorian, larunbat gauean horiek denak uztartu zituelako Ttakun KEK, Earra! Bertso Eskolak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatutako udaberriko bertso saioan.

Eta, kasualitatez, noizbait hilko balitz, Maurizia Aldekoiturriagak berpiztuko luke, seguru, panderoa eskuetan. Interpretazio bikaina egin zuen Intza Alkain herritarrek, ikusleak barreagatik malkotan utzi arte. Bakarrizketa hori izan zen gaueko ikuskizun txalotuenetakoa. Maurizia erretiratu ostean, Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañak bertsoak abestu zituzten pertsonaia bitxi horrek kontatuak aintzat hartuz.

Dinamika bera jarraitu zuten gau osoan. Atera ziren oholtzara Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako pare bat talde, baita Erketz Dantza taldekoak ere; atera ziren Urtzi Agirretxe, Aitor Lasa, Joseba Tapia, Dani Narbarte, Peio eta Goiatz Aiestaran eta Iñigo Azkue trikitilariak; eta oholtza gainean aritu ziren Alazne Ramos, Uxue Odriozola, Maider Oartzabal eta Ibai Fresnedo dantzariak.

Aktuazio bakoitzaren ostean, Uxue Loinaz gai-jartzailea atera eta estuasunetan jarri zituen hiru bertsolariak, era guztietako gaiak proposatuz: politikarekin lotutakoak, ea zein dantza erritmo zuten gustukoak. Ligatzeko orduan ea zein ote zen euren

TRIKITIXA ETA DANTZAREN INGURUAN ERAIKIA IZAN ZEN AURTENGO BERTSO SAIOA

'konfort' gunea, zoriontasunari buruz ere abestu behar izan zuten... Iñigo Azkue trikitilariak esan zuen bezala, gaia edozein izanda ere, "urre bihurtu" zuten Labakak, Lujanbiok eta Egañak.

Publiko artean bertsoan

Egitarauko ikuskizun ia guztiak oholtza gainean izan ziren, baina amaitu aurretik, mikrofonoak eskuetan, hiru bertsolariak publiko artera joan ziren koplatan egitera, Joseba Tapia trikitilaria lagun zutela. Umorea ardatz hartuz, bertso ederrak abestu zituzten; adi-adi ari ziren entzuten 'Andoniren zaleak' (helduak, aurreko ilaretan zeudenak) eta 'Aneren zaleak' (atzealdean zeudenak, gazteak), 'udaltzain eta ertzainak' (Kukuka zein Erketzeko dantzariak, kapela urdinak eta gorriak zituztelako) ere presente zeudelarik. Eta, ohartzera, 00:30ak ziren. Galdetuz gero, beste ordu pare batez ere gustura egongo ziren kultur etxean elkartutakoak.

Hipoteken inguruko hitzaldia

Etxe-kaleratzeen inguruko informazio jaso zuten herritarrek, atzo Biyak Baten egindako hitzaldian

Maddi Noriega

Kaleratzeak Stop Desahucios taldeak Lasarte-Oriako udalarekin eta Biyak Batekin batera, etxeko hipotekak ordaindu ezin dituztenei zuzendutako hitzaldia antolatu zuten atzo, arratsaldeko 18:00etan. Biyak Bat helduen egoitzan izan zen aipatu hitzaldia.

Udalak, etxe kaleratzeen inguruko interesa duten herritarrek hitzaldian parte hartzera animatu nahi izan zituen; izan hipotekaren titularrak zein senideren batekin abal-emaileak direnak.

Hitzaldian banketxearekin 5 urteko gabe-aldia negoziatzeko

aukerak azaldu zitzaizkien bertara gerturatu ziren herritarrei, horrela, ordaintzeko zailtasunak dituztenek.

Aukera paregabea izan zen herritarrei gaiaren inguruan ardura sortzen dien hainbat galdera argitzeko: gehiegizko klausulak, gabe-aldiak, enkanteak, besteak beste.

Hitzaldira gerturatuko lasarteoriatarrek, hainbat gomendio eta zalantza argitu ahal izan zituzten hitzaldian.

Hizlariak, zalantzak dituzten herritarrei plataformarekin konkatuan jartzera animatu nahi dituzte herritarrek.



Herritar ugari animatu ziren Azkorte ermitara igotzera. TXINTXARRI

Giro ederra Azkorten, maiatzeko lehen igandeko erromerian

Urtero legez, hainbat herritar igo ziren Azkortera, Ttakun KEK antolatutako erromeriaz gozatzera.

Txintxarri

Goizean goiz esnatu eta eguzkia dir-dir egiten ikusi ostean, herritar ugari mendiko arropak jantzi zituzten eta Azkorte ermitara igo ziren, Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuen erromeriaz gozatzera.

Ermita txiki geratu zen beste behin ere hamaiketako meza entzuteko. 09:30etik hasita, Biyak Bat egoitza paretik hainbat autobus igo ziren jendez beteta Azkortera. Mezara sartu ez zirenek, goizeko ibilalditxoaren ostean indarrak hartzeko pintxo

goxoak zein edari freskoak dastatu zituzten postuan.

Ttirriki-Ttarrakako lagunek ere ez zuten hutsik egin, eta euren trikiti zein pandero doinuekin alaitu zuten goiza. Bien bitartean, herri kirolen desafioak ere jendetza bildu zuten: Telleriatarrek harriak jasotzen ibili ziren, eta Mugertza anaiek hainbat enbor moztu zituzten aizkorak eskuetan hartuta.

Antolatzaileek balantze positiboa egiten dute, eta gustura daude aurtengo erromeriak izandako harrerarekin.



Herritar ugari gerturatu zen elkarretaratzera. TXINTXARRI

Erraustegiaren kontrako burrunba

Lasarteoriatar ugari bildu zen Okendo plazan erraustegiaren proiektuari desadostasuna adierazteko. Salatu dute lanak hastear daudela, eta gonbita luzatu dute hurrengo egunetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko

Martin Vicioso

Gipuzkoako herri askotan errauskailuaren kontrako oihu eta burrunbak entzun ahal izan ziren pasa den astelehenean.

Erraustegiaren kontrako mugimenduak elkarretaratze zaratsuak deitu zituen lurralde osoan, eta Lasarte-Oriako Okendo plazan ere hitzordua jarri zuten arratsaldeko 19:00tan.

Kazerolak, txilibituak, zartaik eta mota guztietako tramankuluekin sortu zuten zarata bertaratu ziren 300 lagun inguruk. Hasierako burrunbaren ostean, Hipodromo etorbideetik abiatu eta kale Nagusian sartu ziren, berriro ere Okendo plazan amaitzeko.

Bertan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek komunikatua irakurri zuten, hurrengo egun eta astetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzerantz deituz.

Etorkizunera begira

30 edo 40 urte barruko Euskal Herrian jarri zuten fokoa

irakurritako dokumentuak. Erraustegiak "osasuna, ingurumena eta denona den finantza publikoa kaltetuko" dituela nabarmendu zuten.

Gizarteak bizi duen "krisi ekonomiko eta soziala" ere izan zuten mintzagai. "Erabili eta bota" ardatz duen eredia sostengaezina da mugimenduko bozeramaileen ustez. Horren aurrean, osasunarekiko eta ingurumenarekiko begirunea izango duten neurriak hartzeko eskatu zuten.

"Minbizi eta gaixotasun arraroak pairatzen dituzten pertsonen kopurua areagotzen ari dela" kontuan hartuta honako galdera luzatu zuen Marijo Vivas bozeramaileak: "Nolatan

**MAIATZAREN 27AN
OSPATUKO DA
ERRAUSTEGIAREN
AURKAKO EGUNA
ZUBIETAN**

baimenduko dute denok arnasten dugun airea kutsatuko duen erraustegia eraikitzea?".

Bestalde, inbertsio publikoak "proiektu faraonikoetan xahutu izana" leporatu zieten erakundeei. Aldi berean, "osasungintzan, irakaskuntzan eta gazte, ezindu eta pobreei emandako laguntzetan egindako murrizketak" salatu zituzten.

Gauzak horrela, "alferrrikakoa eta gipuzkoarron bizitzak 35 urterako hipotekatuko duen erraustegiari ezetz" esateko eskatu zuten.

Erraustegiaren lanak hasi dira

Asteazkenean Errausketa planta berriaren lehenengo harria kokatu zuen Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Markel Olanok.

2019ko udazkenean martxan jartzea espero dute. Urbaser enpresak kudeatuko du obra, eta Meridiam Investments-ek, Altuna Y Uriak, Moyuak, Muriasek eta LKS-k ere parte hartuko dute.



ASDEM-eko kideek hitz egin zuten astelehenean. TXINTXARRI

Nerabeen arriskuak aztergai Danok Kideren jardunaldietan

Bullying-a, mugikorren eta sare sozialen erabilera eta alkohola eta drogen kontsumoaz aritu ziren

Txintxarri

Nerabeak eta eguneroko bizimoduan pairatzen dituzten arriskuak izan dira aurtengo 'Baliotan hezi' jardunaldietako ardatza.

Astelehenetik asteazkenera, Danok Kide Gurasoen Elkarteak bultzatuta, zenbait hitzaldi antolatu zituzten.

Eskola jazarpena aztertuz

Astelehenean ASDEMeko –Adin txikiko defentsarako elkarteko– kideek eman zuten eskola jazarpenari buruzko hitzaldia. Azaldu zuten "berdinen arteko

biolentzia" dela delako 'bullying'-a. Horren aurrean, "erantzukizuna" hezkuntza komunitate osoarena dela nabarmendu zuten.

Hondarribian bere buruaz beste egin zuen nerabe Jokin Zeberioaren kasua mugarria izan zen, ASDEM-eko kideen ustez. Hortik aurrera, ikastetxe eta familia askotan, arazo hau seriotasun handiagorekin hartzeari ekin zioten.

Eskola jazarpen motak ezagutu eta identifikatzen ikasi zituzten, hauen aurrean hartu beharreko jarreraren eta komentarioen inguruko hausnarketak eginez.

Bazkide berriak aurkeztu ditu Aterpea Merkatarien elkarteak

52 bazkide izatetik, 110era igaro da elkarteak. Udalak eta Aterpeak bazkide berriak biltzeko kanpainaren ondorio izan da

Maddi Noriega

Handituz doa Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteko familia. Berrogeita hamabi bazkide izan badira orain arte, egun, ehun eta hamar dira. Udalak eta elkarteak bazkide berriak biltzeko martxan jarritako kanpainaren ondorio izan da hori.

Horren berri eman zuen atzo, Ramon Ormazabak Aterpeko lehendakariak prentsa aurrean egindako agerraldian.

Hiru helburu izan zituen prentsaurrekoak Ormazabalen

hitzetan; lehena, Aterpeak aurrera egin dezan laguntza ematen duten eragile guztiei eskertza egiteko; "Tratu on bat" herritarrentzako txartelaren berri emateko bigarrenik, eta merkatarien elkarte osatzen duten bazkideak elkar ezagutzeko hirugarrenik.

Agerraldia amaitu aurretik, Iciar Irurzunek elkarteko idazkaritza utziko duela jakinarazi zuen Ormazabalek, eta horrekin batera, hemendik aurrera, lan hortaz Arantza Aldai arduratuko dela azaldu zuen.



Herriko auzoetan zehar kokatutako sei hauteslekuetara gerturatu ziren lasarteoriatarrek. Irudiotan, Arriskalleta Elkartearen hainbat herritar bozka ematen. TXINTXARRI

Txinxtarri

Euskal Herriko herri asko harrapatu zituen burujabetzaren aldeko olatuak asteburuan. Lasarte-Orian ere 2.000 pertsona baino gehiago gerturatu ziren sei bozkaletuetako batera Loratu Taldeak proposatutako bi galderen inguruko iritzia ematera.

Guztira, 52 herritako biztanleei galdetu zitzaizen ea Euskal Estatu independente bateko biztanle izan nahi ote duten. Galdera ezberdinak mahaigaineratu dituzte udalerrri bakoitzean, baina guztien funtsa hura da, nazio subiranotasuna gauzatzea.

62.736 euskal herritarrek eman zuten bozka pasa den igandean, errolda osoaren laurdenak gutxi gora behera. Hala, %25,30ko parte hartzearekin, maiatzaren 7ko olatuak aurrekoek edukitako arrakasta antzekoa izan du. Esaterako, Tolosaldean, Oarsoaldean, Hernanin, Astigarragan eta Larrabetzun

Burujabetzaren aldeko urratsa

Euskal Herriko berrogeita hamabi herrik izan zuten igandean, erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera; horien artean Lasarte-Oriak. Guztira, 2.303 herritar gerturatu ziren herriko auzo ezberdinetan kokatutako sei bozka-lekuetara. Jai giroa izan zen nagusi

antolatutako galdeketak deituak zeuden %24,83a bildu zituen.

Oraingoan, berriz, inoiz baino pertsona gehiago deitu zituzte hauteslekuetara. Debabarrena, Durangaldea, Lea-Artibai, Uribe-Butroe, Uribe Kosta eta Urola Kosta eskualdetako eta Legutio, Orozko, Urkabustaiz, Zeanuri, Usurbil, Zubieta eta Lasarte-

Oriako biztanleek eman zuten iritzia igandean.

Harrera ona izan du galdeketak Zubietan -%54,2- eta Usurbilen -%38,1-. Bietan galdera bera luzatu zuten talde eragileek: "Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?". Baiezkoak ezezkoak baino

2.303 HERRITARREK GAUZATU ZUTEN EUREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA; %14,8KOA IZAN ZEN LASARTE-ORIAN PARTE HARTZE DATUA

gehiago izan dira nabarmen -239 baiezko, 2 ezezko eta zuri bakarria Zubietan; eta 1.729 baiezko, 53 ezezko eta 61 zuri Usurbilen-.

Datorren hilabetearen erabakitze eskubidearen aldeko hurrengo olatua Nafarroa Garaiko iparraldera iritsiko da. Basaburuan, Bortzirietan, Imotzen, Mendialdean eta Sakanan egingo dituzte galdeketak ekainaren 18an.

Etxarri-Aranatzen eta Bakaikuan ez da hautestontzirik izango. Bozkatzen lehenak izan ziren etxarriarrak, eta bakaikuarrek azaroan gauzatu zuten euren eskubidea.

Lasarte-Orian %14,78

Igandean, 2.303 lasarteoriatarrek gauzatu zuten euren erabakitze eskubidea; %14,78koa izan zen parte-hartzea. Dena den, maiatzaren 7an gertatutakoa zenbakiez harago doa. Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoko kide Jose Carlos Carrascok argi asko azaldu zuen: "Goxo, jai giroan plazaratu dugu gaia, ongi egin dugu dena; batzen gaituena ospatu dugu, ez banatzen gaituena. Hasi aurretik bagenekien irabazi egin dugula gaur. Irabazi dugu. Lasarte-Orian".


Goizetik iluntzera arte

Jai giroa izan zen nagusi Lasarte-Orian, goizetik iluntzera arte.

Bolondresak, antolatzaileak eta berme-batzordeko kideak goizean goiz jaiki ziren, ilusioz beteriko egun bati ekiteko.

Hauteslekuetako batean, Arrieskalleta elkartearen elkartu ziren hainbat antolatzaile, goizeko mezua irakurri eta herritarrek botoa ematera animatzeko. Hortik aurrera ireki ziren gainontzeko hauteslekuak ere, etxafero-soinuek hauspotuta.

Goizean zein arratsaldean zehar ilararak ikusi ahal izan dira



Azalpena
15.548 biztanleek izan zuten bozka ematera joateko aukera igandean, Lasarte-Orian.
Horietatik guztietatik, 2.303 lasarteoriatarrek gauzatu zuten zegokien eskubidea; ehunekotan zenbatuta, herritarren %15a gerturatu zen hautesontzietara.

horietan, erdigunekoetan batez ere: Arrieskalletan eta Ostadar SKTren egoitzan. Gainontzeko hautestontziak Lasartearra elkartean, Zabaleta Auzolanen lokalean, Oriako Denda Berrin eta Sasoeta auzoan egon ziren.

Sei gune horietan bezainbesteko (eta une askotan gehiagoko) mugimendua egon zen Okendo plazan. 11:00etan hasi zen Erabaki Fest-en egitaraua, zunba saioarekin. Gorputza astindu zuten lasarteoriarrek, eta baita Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldeek zein Ostadar Ipar Martxako kideek ere, koreografia anitzak taularatu.

Eguerdian berriz, 'Hamaika itxaropen' abestiaren sortzaileen doinuek lagunduta, zerurantz altxatuko eskuek hartu zuten plaza. Eskuen ostean iritsi zen olatu erraldoia, Porrotx pailazo bihurriak gidatuta. Ehundaka herritar elkartu ziren Okendon, 'Erabaki' afixak eskuetan zituztela. Goizean zehar gelditu

GALDERA BIKOITZARI ERANTZUN ZIOTEN HERRITARREK IGANDEAN EGINDAKO HERRI GALDEKETAN

gabe aritu ostean, indarrak hartzera abiatu ziren hainbat herriko tabernetan barrena, pintxo-pote girotuan. Ordu eta erdi beranduago berriz, Okendora bueltatu eta karpan bazkaldu zuten, norberak bere janaria eramanda.

Bazkalostean lokartzeko gogoia sartzen da askotan, baina igandean ez zen horrela izan.

Unai Muñoa eta Ane Labakaren bertsoek, erromeria inprobisatuak eta gure herrian hain ezagun egon den Safri Duo taldearen doinuek eragotzi zuten hori. Bien bitartean, finalerdietara sailkatutako zortzi bikoteek

Loratu Mus txapelketako sari potoloenak irabazten saiatu ziren. Azkenean, Aitzol Irazustabarrena eta Jose Manuel De la Serna 'Karrantxo' izan ziren garaile, finalean Xabi Arteaga eta Axular Iparragirri irabazita. Txapelketako babesleak Noaoa! Bidaiak eta Patxi Larrañaga zein Etxezarreta harategiak izan ziren. Musa eta gero, berriro ere dantza egiteko unea, Zigor Lanpre DJaren eskutik. Ordu eta erdiko saioaren ondoren, Xumela abesbatzako kideek eta herriko txistulariek hartu zuten lekukoa, eta erdigunean ibili ziren kantu-jiran.

Eta, eguna biribiltzeko, azken ekitaldia. Jon Altuna Egitegi kazetariak egin zituen esatari lanak. Oholtza gainetik igaro ziren Tomas Arruti eta Pontxo Morales txalapartariak, Erketz dantza taldeko dantzariak, bermebatzordeko kideak eta baita herri galdeketa antolatutako zutenak ere. Bereziki hunkigarria izan zen azken hauek igo zirenean taula ganean, 'Eskerrik asko' esaldiaren hizki bakoitza eskuetan hartuta. Horrez gain, iragarri zute zein izan zen eguneko boto kopurua: 2.303. Plazan bildutakoek txalo zaparrada luzeak jo zituzten albistea jakitean.



Maiatzaren zazpiko galdeketa balorazioa

LORATU TALDEA HERRI GALDEKETAKO TALDE ERAGILEA

Maiatzaren 7ko herri galdeketa ondoren, hauxe da Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok igandeko jardunaldiaren eta aurretik egindako lanaren gainean osatutako balorazioa:

Igandeko kontsulta ariketa demokratiko bat izan da. Erabakitze eskubideari buruz hizketan jarraitu ahal izateko tresna da galdeketa eta helburu horretara heltzeko egindako bidea da nabarmendu nahi duguna. Bide horretan, herriko hainbat eragile eta herritarrek elkar ezagutzeko aukera izan dugu, elkarrekin lan egin eta ikasteko. Elkarrengandik hurbilago gaude gaur. Honez gain, azken hilabeteetako lanari esker, Lasarte-Oriako Gure Esku Dago herri ekimena anitzagoa ere bada nahiz eta oraindik ez den nahi genukeen bezain zabala. Herritarrek ahaldundu

egin gara eta honek ilusioa sortu eta jendea aktibatu du.

Igandeko emaitza oso pozgarri eta baikorra izan da Lasarte-Oriako GEDentzat. Herriak ondo erantzun du eta 2.303 lagunek hartu dute hitza. Herritarren ia %15ak, hain zuzen ere. 2.303 lasarte-oriatar aktibatu dira. Bost kultur etxe betetzeko adina lagun... eta hori, ez da nolana hiko erantzuna. Bestalde, maiatzaren 7ko herri galdeketa jai giroan eta inolako arazorik gabe burutu izana ere azpimarragarria iruditzen zaigu.

Hurrengo pausoak

Aurrera begira, Lasarte-Oriako GEDk bidean hobetzekoak eta egitekoak askoz garbiago ikusten ditu. Printzipio baten bueltan eta elkartzen gaituena oinarri hartuta jarraitu nahi dugu aurrera eta Juanjo Alvarezen hitzek dioten moduan pluraltasunez eraiki behar da nazioa, nire ametsa zure amesgaizto bihur ez dadin. Horrela jarraitu nahi dugu, elkartzen gaituenaren bueltan gero eta

adostasun eta harreman-sare zabalagoa osatuz.

Hurrengo pausoa, eragileen eta herritarren itunak izango dira. Beste herrietan bezala Lasarte-Orian ere eduki pluraleko adierazpena landuko da 2018an eta hori, ekainaren 10ean Bilbon egingo den ekitaldian aurkeztuko da. Institutioetan erabakitze eskubidearen aldeko ekinbideak sustatuko dira eta Lasarte-Orian herritarren arteko elkar ezagutzea eta harreman sarea sendotzen jarraituko dugu.

Azkenik, 2019an erreferendum orokorrerako deialdia landuko dugu Lasarte-Orian ere..

Eskertzak

Ez genuke balorazio hau amaitu nahi, azken hilabeteetan herri galdeketa ekimenean modu batera edo bestera parte hartu duten herritar eta eragileak gogoan izan gabe. Bai asteroko bileretan ibili den jendea, eta baita parte hartze puntualagoa izan duena ere. Guztiak izan dira ezinbestekoak bide hau gauzatu ahal izateko. Jendeak prozesuaren

parte izan nahi duela ikusi dugu, ilusioa eta poza arnastu ditugu.

Halere, modu berezian eskertu nahi ditugu hurrengoak:

*Hautesleketako lokalak utzi dizkigutenak: Lasartearra eta Arrieskalleta elkarre gastronomikoak, Ostadar kirol elkarre, Zabaleta auzo elkarre eta Sasoeta eta Basaundiko lokalen jabeak. Eta hautesleku bezala erabili ez badira ere, bestelako egitekoetarako lokala utzi diguten Ttakunenea eta Xirimiri elkarre.

*Pastoral kontseilua

*Noaoa bidaiak

*Gure Etxea taberna

*Globoaren jabea

*Herriko merkatari eta dendak

*Udala, eskaini dizkigun erraztasunengatik

*Maiatzaren 7ko jaiaren parte hartu zuten herritar eta elkarre

*Maiatzaren 7ko antolaketa lanean ibilitako milatik gora boluntarioak

*Eta bide honetan hainbeste lagundu duten tutore eta saretuak.

5. SAGASTIAK LORETAN 2017

SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA USURBILLEN

Antolatzaileak: SAGARDOAREN UNIBERTSITATEA, ALKARTASUNA (Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba), NOAUA! Kultur Elkarre. **Laguntzaileak:** USURBILGO UDALA, Usurbilgo SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK, ZUMETA Arte Estudioa, EUSKAL SAGARDOA, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarre, BIZI SAGARDOA. **Elkartar-nean:** TABAKALERA Kultur Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, CRISTINA ENEA Fundazioa, HAZIERA hazien artxiboa

Euskal Herriko 1. EGURREZKO SAGARDOEN TXAPELKETA

XXXVI. SAGARDO EGUNA USURBILLEN

MAIATZAK 21, igandea • 12:00

Goiko Plazako oholtzan.

Informazioa: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, 943 361 114 Txapelketan parte hartzeko oinarriak ondorengo kodean:



ERABAKIAREN FESTA

EDERKI ERANTZUN ZUTEN HERRITARREK



Aitzol eta 'Karrantxo'-k irabazi zuten Loratu Mus txapelketa. TXINTXARRI



Maiatzaren 7an iritsi zen erabakiaren olatua gurera, eta goian-behean busti gintuen. Herritarrek gogotsu hartu zuten part



Adina ez zen aitzakia izan joan den igandeaz gozatzeko. TXINTXARRI



Porrotx pailazo bihurriak gidatu zuen erabakiaren aldeko olatu erraldoia. TXINTXARRI



En parte Erabaki Fest jaiko ekintza guztietan. Olatu erraldoi bat ere irudikatu zuten, 'Erabaki' afixak eskuetan. TXINTXARRI



Goizean goiz parte hartu eta bozkatzera animatu zituzten herritarrek antolatzaileek. TXINTXARRI



Herri galdeketa antolatzaileek eskerrak eman zizkieten lasarteoriatarrei. TXINTXARRI



Zigor Lanpre DJak ederki girotu zuen Okendo plaza arratsaldean zehar. TXINTXARRI



'Hamaika itzaropen' abestiaren koreografia dantzatu zuten hainbat herritarrek. TXINTXARRI

Arteaga finalera sailkatu da buruz burukoan ere

Promozioko binakakoan txapela jantzi eta hilabete pasatxora, Axier Arteagak buruz buruko finalean aritzeko txartela poltsikoratu zuen joan den larunbatean Tolosako Beotibarren, Jon Ander Peña tolosarrari 22-16 irabazita.

Txintxarri

Berriro ere final batera. Eta, berriro ere, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Frontoi horretan duela hilabete pasatxo Promozioko binakakoan txapela jantzi eta gero, buruz buruko finalean aritzeko txartela poltsikoratu zuen aurrelari lasarteoriatarrek joan den larunbatean, Jon Ander Peñari 22-16 irabazita.

Apirilaren leko finalean bi horien artekoa izan zen aurreko koadroetako lehia. Larunbatean, berriz, kantxa osora aritu ziren nor baino nor gehiago. Bien arteko dema duela hilabetea baino dezente orekatuagoa izan zen. Gogotik egin behar izan zuen lan Arteagak garaipena erdiesteko.

Indartsu ekin zion neurketari aurrelari tolosarrak: 2-7 aurreratu zen. Dejadaz egin zituen hiru tanto eta sakeaz ere baliatu zen markagailuan tartea irekitzeko. Arteagak berehala erreazionatu



Arteaga II.a, egurrean. TXINTXARRI

zuen ordea, eta berdinketa bakarrik ez, aurretik jartzea ere lortu zuen, 8-7. Bere erreperatorioko onena erakutsi zuen: ezker gantxoak, eskuinkada zitalak eta baita buruz gain egindako tanto bat ere. 6-0eko partziala

jaso zuen Peñak, baina ederki erantzun zion, bost tanto eginez jarraian. Orduz geroztik, Peñaren aldeko tanto-tartea gero eta murriztagoa bilakatu zen, 14na berdintzeraino. Orduan berriro ere Peña aurreratu zen, 14-16, eta hori izango zen neurketa osoan egingo zuen azken sarea (pasa egin zuen gainera), ordutik aurrera gorri kolorekoak izan baitziren tanto guztiak. 18-16 aurreratu eta bigarren atsedendira joan arren, horrek ez zuen herritarren erritmoa eten eta abiada betean ailegatu zen 22. tantora.

Bakaikoa aurkari

Datorren asteko larunbatean jokatu da final handia, Iruñeko Labriten. Arteaga gorriz ariko da berriro, aurten debutatu duen Joanes Bakaikoa izango baitu aurkari. Faborioetako bat, Gorka utzi zuen kanpoan aurrelari nafarrak finalerdietan; 22-14 irabazi zuen.



Trinko Ibarburu, Gallardo, Salsamendi eta Izagirre. TRINKO

Herriko triatloilariak egurrean jarraitzen dute maiatzean

Debako Xtreme triatloiean lehiatu ziren pasa den astean eta Hondarribiara abiatuko dira etzi.

Txintxarri

Beste behin, herritar talde batek Debako Xtreme triatloian hartu zuen parte. Horien artean, Trinko Triatloi taldeko zenbait kirolari..

Mikel Olarrak, Enaitz Ibarburuk, Mikel Izagirrek eta Andoni Salsamendik hartu zuten parte eta lauek ordubete eta hogeitabost minutu eta ordu eta erdi arteko denbora egin zuten..

Mendibe, bosgarren

Bestalde, Maria Mendibe herritarrek ere parte hartu zuen eta bosgarren postuan sailkatzea lortu zuen, 01:29:39ko denbora

eginez. Beteranoen kategorian bigarren izan zen, lasterketa 01:25:56etan egin zuen Estefania Gomezen ondoren..

Emakumezkoetan azkarrena Mireia Arrillaga izan zen, 01:23:35eko denborarekin. Gizonezkoetan, berriz, Pello Osoro izan zen onena, kronoa 01:11:26an geratuz.

Hondarribiara

Trinko taldeko Zigor Gallardo, Enaitz Ibarburu, Andoni Salsamendi, Imanol Arteaga eta Asier Gorostegi Hondarribiako Tri Sprintean lehiatuko dira.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
INFANTILEN OHOREZKO KOPA
Ostadar SKT - Mariño CD Larunbata. 13:00. Michelin.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Hernani CD Larunbata. 15:30. Michelin.
ERREGIONALEN 1GO MAILA, KOPAKO FINAL ZORTZIRENAK
Munibe KT - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Berio, Donostia.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Martutene KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Martutene, Donostia.
EMAKUMEEN IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Arizmendi KE Larunbata. 17:30. Michelin.
KADETEEN 1GO KOPAKO FINAL ZORTZIRENAK
Ostadar SKT - Danena KE Igandea. 10:00. Michelin.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA, KONTASOLAZIO FASEA
Indaux - Txoko Larunbata. 10:00. Kirolgunea.
Reformas Lagunak - Viña del Mar Larunbata. 11:00. Kirolgunea.
HERRIKO TXAPELKETA, FINAL LAURDENAK
Izkiña - Kebab Taberna Larunbata. 15:00. M.Chourraut kiroldegia.
Trumoi - Urdaneta H.K. Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.
Kattagorri Insausti - Also Larunbata. 17:00. M.Chourraut kiroldegia.
Aita Amari - Ilargi Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.
3. NAZIONAL MAILA
San Jorge - Ostadar Antonio Aroztegia Igandea. 12:30. Mikel Trueba kiroldegia, Santurtzi.

SASKIBALOA
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Atletico San Sebastian - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Aiete, Donostia.
PILOTA
GIPUZKOAKO 4 T'ERDIA
Mozo (Intxurre) - Solano (Intza) Ostirala. 19:30. Ikaztegietakoko pilotalekua.
Lizaso (Behar Zana) - Artetxe (Intza) Larunbata. 10:00. Amasa-Villabona
ALEBINAK
Intza 1 - Hernani Ostirala. 19:30. Michelin pilotalekua.
Gazteleku - Intza 2 Larunbata. 16:00. Arrate, Andoain.
INFANTILAK
Intza - EPLE Ostirala. 20:15. Michelin pilotalekua.
TRINKETAKO EUSKAL LIGA
Solano (Intza) - Aspuru (Atxurde) Larunbata. 12:00. Michelin pilotalekua.

TXIRRINDULARITZA
INFANTIL, KADETE ETA JUNIORRAK
Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako txirrindulari infantil, kadete eta juniorrek hitzordua dute Ataunen, Abadiño eta Urretxun, hurrenez hurren. Asteburuan. Ataun, Abadiño eta Urretxu.
ATLETISMO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako atletek Pista Irekiko Gipuzkoako Txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta Igandea. Mini estadioa, Donostia.
TRITATLOIA
HONDARRIBIA TRI SPRINT
Trinko Triatloi taldeko Zigor Gallardok, Asier Gorostegik, Andoni Salsamendik, Enaitz Ibarburuk eta Imanol Arteagak hartuko dute parte. Igandea. 10:30ean, Hondarribiako hondartzan.

IGERIKETA
ESKOLARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo igerilariak Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan hartuko dute parte. Larunbata eta Igandea. Goiz eta arratsaldean. Usabal, Tolosa
ESTROPADAK
TRAINERILAK
Intza Fernandez herritarrek Gipuzkoako trainerila txapelketan hartuko du parte Donostiarra taldearekin. Larunbata eta Igandea. Mutriku.
LASTERKETA
AFIZIONATUAK
Zenbait herritarrek hartuko du parte minbiziaren kontrako lasterketan. 7 kilometroko froga burutuko dute Donostian Igandea. 10:00. Konstituzio plaza, Donostia.

Azken jardunaldian lortu du lidertza Aita Amarik

Lehenak eta bigarrenak elkarren aurka jokatu zuten fase erregularreko azken jardunaldian. Kattagorri-Insausti taldea 5-0 menperatu ostean, Aita Amarik eskuratu du fase erregularreko talde onena izatearen ohorea

Martin Vicioso

Ohorezko saria besterik ez da, baina fase erregularreko txapeldun geratu izana motibazio ziztada izango da Aita Amari taldeko jokalarientzat. Jardunaldi askotan lidertzaren jabe izan den Kattagorri-Insausti 5-0 garaitu ondoren, postua eurenaganatu dute.

Ondorengo postuetan ez da aldaketarik egon, eta bi lehenen ostean geratu dira, hurrenez hurren: Trumoi, Kebab, Izkiña, Urdaneta HK, Also, Ilargi, Indaux, Viña del Mar, Reformas Lagunak eta Txoko.

Hala, lehenengo zortziek euren buruak neurtuko dituzte ikurrinaren bila partidu bakarrek kanporaketetan.

Liderrak Ilargi gainditu beharko du bihar txapelketaren lehiari bizirik jarraitu nahi badu. Bien arteko irabazleak 2016ko txapelduna edo txapeldunordea izango du zai. Izan ere, Izkiñak eta Kebab Tabernak -Txindoki zenak- haien artean jokatu beharko dute final zortzirenetan.

Beste aldetik, Kattagorri-Insaustiren eta Alsoren arteko garaileak Trumoiaren eta Urdaneta HKren artekoa izango du aurkari.

Larunbatean jokatu dira partidu guztiak. Goizean, Michelingo kirolguneko zelaian,



Maialen Chourraut kiroldegian jokatu dira kanporaketak. TXINTXARRI

Kontsolazio faseko partiduak. 10:00etan Txokoren eta Indauxen artekoa, eta 11:00etan, Viña del Mar-en eta Reformas Lagunak artekoa. Arratsaldeko 15:00tatik 18:00tara programatu dituzte 'playoff'-etakoak.

Aurtengo formatuak ezustekoak egoteko aukerak handituko ditu. Izan ere, partidu bakarrera, teoriar ahulagoak diren taldeek min handiagoa egin ahal izango dute.

Ostadar, mantentzeko lehiari

Zalditxo de Araia taldearen kontra 1-3 galdu ostean, jaitsiera

postuetatik ateratzeko aukera galdu zuen Ostadar Antonio Aroztegiak. 19 punturekin dira, eta momentu honetan Nazional 3. mailan mantenduko litzatekeen San Jorgek 2 gehiago ditu.

Horregatik, hil ala biziko norgehiagoka jokatu dute urdinbeltzek etzi Santurtziko Mikel Trueba kiroldegian.

San Jorge Peñota Dental izango dute aurkari eta, esan bezala, irabaziz gero, jaitsiera postuetatik aterako lirateke. Bi jardunaldi falta direla, finala balitz bezala prestatuko dute lasarteoriatarrek.

Maialen Chourrautek sendo jarraitzen du Espainiako Kopan

Asteburuan La Seu d'Urgell-en jokatu dako bi jardunalditan nagusi izan zen Chourraut

Txintxarri

Munduko Kopa da Maialen Chourrauten aurtengo erronka nagusia. Hura iritsi aurretik, ordea, beste hainbat hitzordu izango ditu.

Horien artean, aste honetan La Seu d'Urgell-en jokatu dako Espainiako Kopako hirugarren jardunaldia. Nagusi izan zen bi egunetako lau jaitsieratan. Asteburuan kopako laugarren jardunaldia jokatu dako Frantziako Pau hirian.

Munduko Kopako jardunaldiak ekainean hasiko dira eta finala irailaren 7an eta 8an izango da.



Munduko Kopa jomugan. ICF

Ohorezko Erregionalak maila galdu du matematikoki

Martuteneren aurka 5-1 galdu ondoren, maila galdu du Ostadar SKT-k. Entrenatzaile aldaketa egon da

Txintxarri

Hiru jardunaldiren faltan, aukerarik gabe geratu dira Ostadar SKT-ko Ohorezko erregionalak. Sailkapenen azken postuan kokatuta zegoen Martuteneren kontra 5-1 galdu zuten asteburuan eta, horrenbestez, Erregional Preferenteko taldea da Ostadar.

Aukera gutxi bazituzten ere, azken jardunaldietako porrotek guztiz hondoratu dute taldea. Ohorezko Erregional mailan bost urte igaro ondoren, Preferente kategorian egokituko

zaie borrokatzea berriro ere hemendik aurrera.

Mikel Medinak ezin izan du taldearen norabidea zuzendu eta, hori dela eta, zuzendaritzak erabaki du datorren urtera begira entrenatzailez aldatzea.

Gauzak horrela, 2017-2018 denboraldiko Ostadar SKT-ren lehenengo taldeko entrenatzaileak Asier Aizpurua eta Ander Rekondo izango dira.

Taldea ezagutzen joateko asmoarekin, eta denboraldia dinamika positiboan amaitu nahian, kargua hartu dute jadanik.

Paola Vega Gipuzkoako selekzioarekin Senperen

Errugbilari lasarteoriatar gazte Gipuzkoako taldeko kide izan zen Senperen egindako topaketan

Txintxarri

Beltzak RT taldeko Paola Vega errugbilari gazteak teknifikazioko eta lehiaketako topaketa batean hartu zuen parte asteburuan Gipuzkoako selekzioarekin. Lapurdiko Senpere herrian

elkartu ziren Nafarroa eta Errioxako konbinatu batekin eta Ipar Euskal Herriko taldearekin.

Zenbait ariketa egin zituzten batera, ondoren, zazpinako errugbiko partiduak jokatzeo asmoz. Lasarteoriatarrek itxura

ona eman zuen defentsako eta erasorako lanean, entsegu bat lortuz.

16 urte azpikoak

16 urte azpikoen Gure Etxea Beltzak RT taldea Espainiako Kopa prestatzeko lanetan ari da, Euskadikoa irabazi ondoren. Hilaren 20an eta 21ean jokatu dute Valladoliden, eta Quesos Entrepinares izango dute lehenengo aurkari. Aste honetan Ordiziaren arteko lagunartekoa irabazi dute.



Paola Vega, baloiaekin. BELTZAK RT



Bizi-bizia izan zen Easoren eta Ostadarren arteko lehia. Balo bakar bat ere ez zuten galdutzat eman. TXINTXARRI

Ostadar, ezustekoa ematetik gertu (58-54)

Errendimendu junior mailako neskek partidu bikaina jokatu zuten kategoría horretako Lauko Finala irabazteko hautagai nagusi den Easoren aurka. Lehen laurdenean ez ziren guztiz fin aritu baina gainontzekoetan estu hartu zituzten donostiarrak.

Iñigo Gonzalez DONOSTIA

Ostadar SK Trentzat Lauko Finalera iristea nahikoa sari dela pentsatzen duenak ez du ezagutzen taldeak daukan lehiatzeko eta borrokatzeko gosea. Errendimendu junior mailako neskek denboraldi aparta osatu dute, eta guztiz biribiltzetik gertu egon ziren joan den larunbatean, Easoren aurka jokatuak neurketan. Ander Otaegik entrenatutako jokalariek estu hartu zuten hautagai nagusia, baina ezin izan zuten ezustekoa eman. Azkenean, 58-54 Easoren alde.

Lehenengo laurdenean urduri samar kantxaratu ziren urdinbeltzak (larunbatean bigarren kirol-ekipamendurekin jokatu zuten, kamiseta zuriarekin, hain justu), eta hori baliatu zuen Easok markagailuan ihes egiteko. Lehenengo hamar minutuetan dena eman zuten herriko taldeko neskek, baina baloia eskuetan zutenean ez zituzten erabaki onenak hartzen eta baloi dezente

galdu zituzten, Easori saskiratzeko aukera gehiago emanaz. Eta, donostiarrak ongi asko erakutsi zuten, erraztasunak emanaz gero ez dute barkatzen.

Partiduaren gidoia erabat aldatu zen bigarren laurdenean, ordea. Ostadar askoz hobeto hasi zen jokatzeko, defentsan bikaina eginez eta kontraerasora bizkor ateraz. Easok faltak eta faltak egitea beste erremediorik ez zuten izan. Ondorioz, jaurtiketa-libre lerroa dezentetan joan ziren Ostadarreko jokalariek, nahiz eta guztietan ez asmatu. Atsedenaldira 27-26 galtzen joan ziren, eta markagailuari buelta ematetik gertu, baina azken jokaldia ez zuten saskiratu.

BIHAR JOKATUKO DA KATEGORIAKO FINAL HANDIA: OIARSOK ETA EASOK NEURTUKO DITUZTE INDARRAK

Bigarren zatiko hogeita minutuetan bi taldeek euren onena eman zuten kantxan. Easo konturatu zen ez zuela partidua erraz irabaziko. Ostadarrek berriz, are gehiago sinesten zuten ezustekoa ematean minutuak igaro ahala. Dena dela, arestian esan bezala, balentria egitetik oso gertu geratu ziren urdinbeltzak, baina larunbatean egindako ahalegina ez zen aski izan azkenean: 58-54 irabazi zuen Easok. Majo izerdituta, hori bai.

Ezin aipatu gabe utzi Ostadar azken segundora arte animatu zuten zaleak. Hainbat izan ziren Gasca kiroldegira hurbildu eta taldea babestu zuten herritarrak.

Final handia: Oiarso-Easo

Jose Antonio Gasca kiroldegian neurtuko dituzte indarrak bihar Oreretako Oiarso eta Donostiako Easok. Teorian Easo da faborito nagusia, baina ezustekoren bat egotea ezin baztertu daiteke. Oso gertu egon zen Ostadar, eta agian egingo du Oiarso.



Atletico San Sebastian taldean aritzen dira Eugi ahizpak. ATLETICO SAN SEBASTIAN

Eugi ahizpak eta Atletico San Sebastian, Euskadiko txapeldun

4x400 erreleboetan irabazi zuen Maria Eugik, eta Euskadiko Kopan txapeldun izan da bere taldearekin

Txintxarri

Pistan egin bezala, emaitza bikainak lortzen ari dira Maria eta Nerea Eugi aire librean. Haien talde Atletico San Sebastianekin batera, Euskadiko Txapeldun geratu dira taldeka.

4x400 lasterketan hartu zuen parte Mariak, eta froga horretan nagusi izan ziren donostiarrak. Bigarren erreleboa hartu zuen Eugik, bigarrenarekiko tartea nabarmen handituz. 4'00"89s-ko markarekin irabazi zuten Maria Eugik, Alazne Echevarriak, Nahia Gutierrezek eta Nerea Irciok.

Nerea Eugi 100 metroetan lehiatu zen, bosgarren denborarik onena markatuz.

Atletico San Sebastian izan zen talderik onena. 183,5 puntu bildu zituzten guztira, Super Amarak baino 2,5 gehiago. Hirugarren Txindoki geratu zen 161rekin.

Banakako txapelketak

Hitzordu garrantzitsuak dituzte aurretik Lasarte-Oriako atletak. Hilaren 27an, junior mailako Euskadiko Txapelketa lehiatuko da, ekainaren hiruan absolutu mailakoa. 24an kadeteen txanda iritsiko da.

Lasartearra futbol talde ohiaren festa ekainaren 10ean

Lasartearra futbol taldea zenak festa bat antolatu du ekainaren 10erako, 1970etik 1982ko denboraldietara bitartean kide izan ziren jokalariek berriro elkartzeko asmoz. Lasartearrak Erribera kalean daukan egoitzan ospatuko dute aipatu festa hori, bazkari-legea eginez, 14:00etan.


Izena eman nahi duten herritar guztiek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena, ondoko bi egoitza hauetan: Patxi Larrañaga harategian (Kale Nagusia, 39) edo Publibrock DV-Txema Valles bulegoan (Kale Nagusia, 6). Informazio gehiago edo zalantzaren bat argitu nahi dutenek 670 430 494 telefono zenbakira deitu dezakete.

Etzi itxiko da Santa Ana pala txapelketan izena emateko epea

Santa Ana pala txapelketaren aurtengo edizioan parte hartu nahi duten herritarrek azken egunak dituzte horretan izena emateko; etzi itxiko da epea. Udal Kiroldegian apuntatu beharko dute, eta honako datuak eman: bikoteko kideen izen-abizenak, bien telefonoak eta baita ordezko jokalaria nor izango den ere. 16 urte beteak dituzten jokalariek aritu ahalko dira.

Maiatzaren 22an hasiko da ligaxka, eta, ohi bezala, finalak Santa Ana egunean jokatu dira. Partidu guztiak 30 tantora jokatu dira Loidibarrenen, astelehenetik ostegunera. Lau bikote onenek txapeldunen fasea jokatu dute.


ZORION AGURRAK




Antonio
Zorionak zure egunean, Antonio! Kontuz kandelak itzaltzerakoan, asko dira ta!! Muxu asko familiaren partez!!



Jesus Mari
Mila zorion hain berezia den gaurko egun honetan eta zorte on hastear zauden etapa berri honetan! 60 muxu, maite zaitugu



Izan
Zorionak txapeldun! 10 muxu potolo gure etxeko erregearentzako!



Nahia
Zorionak pottoki lehenengo urtebetetzean!!! Amatxo eta aitatxo.



Iker eta Nora
Zorionak Iker eta Nora! Bi muxu potolo aitatxo, amatxo eta familiaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrak eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

*Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.*

SUDOKUA

5	1				6		8	7
4	3				5			1
6				2		5		
					7	9		5
			2		4	1		3
		3		9				
9		1			2		3	
		7		1			5	8
3	5		6	7			1	

GUTUNAK

Esperantzari Lehio bat zabaldu omen diote...

BIXENTE BELTRAN

Igandean, lasarteoriar askorengan, irribarrea eta ilusioa izan zen nagusi, eta horrekin, buruturiko lan guztiak, merezi izan zutela iruditzen zait. Beraz, zorionak egun zoragarri hori bizitzeko posible egin zenuten guztiei.

Goizetik, azken prestaketetatik hasi eta botoen kontaketa amaitu zen bitartean, une hunkigarri asko bizitu genituen. Herritar bakoitza protagonista izan zen, eta lehen aldiz, gure etorkizuna nolakoa izatea nahi dugun adierazteko aukera izan genuen.

Emaitzatik haratago, egun hunkigarri bezain zoragarria bizitu ahal izan genuen. Ikusgarria izan zen, adin guztietako herritarrek hauteslekuetara gerturatzen ikustea, helduak familiakoen

besotik, haurrak gurasoen eskutik, denak ilusioz gainezka bere botoa hautestontzian sartzerakoan. Gure erretinan luzaroan geldituko den une zirrargarriak izan ziren benetan.

Lotsarik gabe esan dezakegu une historikoa baten protagonistak izan ginela, eta gure herrian ezinezkoa zirudien abentura honen gauzatzeak, hau da, herriari hitza emateak, jende askorengan sekulako ilusioa piztu duela.

Aipatu ere, dudarik gabe igandean geroztik, gure helburua gertuago dagoela, eta gure ametsak egi bihurtzeko beste urrats garrantzitsu bat eman genuela.

Aipagarria da ere eguraldia lagun, Okendo plazan buruturiko ekintza desberdinetan herritarren parte hartzea, esan daiteke, denon artean LORATU genuela Lasarte-Oria.

Mahaikide, seguritate eta batzorde desberdinetan lanean aritu zaren

guztiei esker, kontsulta ereduagarria izan da. Zalantzarik gabe ordutik, lasarteoriarra izateaz arroago nago.

Zoritxarrez, igandeko kontsultak, herrian hutsune nabarmenak agerian utzi dizkigu. Galdeketa, ariketa demokratikoa soilik izanik, ulergaitza da zenbaitzuen aldetik parte hartu ez izana.

Gutako bakoitzak libreki erabaki ahal izan du galdeketa parte hartzea ala etxean geratzea. Parte hartu dugun askorentzat, esperientzi hunkigarria izan da, eta aurrera jarraitzeko indarrak berriztatze, eta sendotzeko baliagarria izatea espero dut.

Hala ere, badakigu gure etorkizuna libre erabakitzeko bidean, oraindik lana gogotik egin beharko dugula, hau hasiera besterik ez dela izan alegia. Horregatik, gure helburuak lortu ahal izateko behar beharrezkoa da denon parte-hartzea, oraingoan

parte hartu ez duzuenek ere, aurki, Gure Esku Dago ekimenak eskaintzen digun elkargune honetan topatzea.

Beraz, gure helmugara iritsi nahi badugu, berandu baino lehen eskutik joateko aukera berriak sortzen ahalegindu beharra daukagu, eta ahal bada, erabakitzearen trenaren hurrengo geltokian, denok elkar ikustea.

Lasarte-Orian bidea egiten hasi gara, eta igandean mugarri izango den zerbaiten lekuko izan ginela uste dut.

ZATOZKIDA, GOI-ARNAS.

EIZU NEREKIN LAN,

ERRI BATEN ARNASA.

MAMITU DEZADAN.

GEROAK ESAN BEZA:

ERRI BAT IZAN ZAN;

EDO-TA ATS EMAIOGUN.

ONTAN IRAUN DEZAN.

Nikolas Ormaetxea, 'Orixe'

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

102. ALOKAIUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. 686674552

Etxea alokatzen da Oztaran plazan. 653712793

Txalet eder bat alokatzen dut Huelvako hondartzan. Guztiz hornituta dago. 943376115.

2. LANA

202. ESKAERA

Mutila eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko, baita eraikuntza aritzeko ere. 655385563

Kanpoko langile bezala lan egin nahi duen emakumea naiz. Ordu kopuru jakin bat lan egiteko ere prest nago, baita gauetan aritzeko ere. 634278198

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke gauetz edo asteburuetan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 671763558

402. EMAN

Euskarazko eta ingelesezko klase partikularrik ematen ditut kopuru ekonomikoan. 600766868

3. BESTELAKOAK

101. SALDU


Mendiko bizikleta salgai. Karbonozko koadroa. Crosmax ST gurpilak. Rock Shock Sid XX urkilak eta SLX, LT osagaiak. 605 763 341

Garaje marra saltzen dut Atsobakar etorbidean (Landaberri ikastola parean) 615733576

102. EROSI

8-10 urteko sorgin dantzako blusa baten bila nabil. 670822802

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Yassin Sellami El Marrouci. Apirilaren 8an.
Oihane Sophie Rua Bautista. Apirilaren 24an.
Osayomore Flourish Agbolahon. Maiatzaren 3an.
Maddi Goicoechea Gutierrez. Maiatzaren 4an.
Oihan Rodriguez Jimenez. Maiatzaren 4an.
Julen Ramirez Ibañez. Maiatzaren 4an.
Mario Perez Manso. Maiatzaren 5an.

HILDAKOAK

Jose Luis Larena Saez. Maiatzaren 9an, 1 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 12 URBISTONDO
 Larunbata, 13 URBISTONDO
 Igandea, 14 URBISTONDO
 Astelehena, 15 GANDARIAS-URIBE
 Astearte, 16 ORUE
 Asteazkena, 17 DE MIGUEL
 Osteguna, 18 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
 KIROLDEGIA: 943 376 182
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
 KIUB: 943 361 605
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
 MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
 DYA: 943 464 622
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953
 UDALTZAINAK: 943 362 442
 ERTZAINAK: 943 288 888
 SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Arteaga II-ren finala Labriten Maiatzaren 20an, Iruñako Labrit pilotalekuan izango da Arteaga II-ren eskuz banakako finala. Bertara gerturatzeko autobusak

antolatuko dira Lasarte-Oriatik abiatuta (14:45etan Tajamar paradan, Kale Nagusia 3). Autobusa zein sarrerak erreserbatzeko 620 39 95 43 telefonora deitu (Puy).

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 20160 LASARTE-ORIA
 G-20407557

Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
 Martin Vicioso, Lorena Lujanbio

Publizitatea

Aranbix Zulaika

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
 Ane Labaka, Mailu Arruti,
 Asier Odriozola, Maider Seguro,
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
 Edu Galardi

Informatikoa

Xabier Amadoz

Administraria

Nerea Garciarrena

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK



LASARTE-ORIA
 UDALA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAIALA
 Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Festa

Merkatarien elkarte Aterpeak antolatuta Udaberri Fest jaialdia ospatuko da Lasarte-Orian. Umeentzako jolasak, musika, ikastaroak eta beste hainbat ekintzarekin gozatu ahal izango da.

Herri osoan, 17:30tatik aurrera.

LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Udaltop jardunaldiek bigarren eguneko hitzaldi eta mahainguruei ekingo diete. Aurtengo gaia herrietako hizkuntza ohiturak dira.

Manuel Lekuona, 09:00tan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

1977ko maiatzaren 12an Errenteriako manifestazio batean Guardia Zibilak suzko armez zauritutako eta hildako pertsonen omenez elkarretaratzea deitu du 'Euskal Udaberria Kalera' ekimenak.

Okendo plaza, 20:00tan.

LARUNBATA 13

USURBIL Kontzertua

Ken Zazpi taldeak kontzertua eskainiko du, Hurbilago elkarteak antolatuta. Sarrerak aurrez erosita 12 euroko kostua izango dute, eta 16koa bertan erosita. Lasarte-Oriako Insausti eta Ilargi tabernetan eskuratu ahal izango dira.

Dema plaza, 00:00tan.

ANDOAIN Haur emanaldia

Katxiporretak 'Pupu eta Lore haizearen herria' emanaldia eskainiko du haurrentzat. Sarrerak Bastero kulturgunean eskuratu beharko dira

Bastero, 17:00etan.

IGANDEA 14

HERNANI Antzerkia

Asier Sotaren zuzendaritzapean, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa aktoreek 'Putinen guardasola' antzerkia eskainiko dute. Euskal



LASARTE-ORIA Festa

Aterpea merkatarien elkarteak bultzatuta, Udaberri Fest antolatu dute gaur. Umeentzako jolasak, musika, ikastaroak eta beste ekintza askorekin gozatzeko aukera egongo da herri osoan zehar.

Ostirala 12, Herri osoan zehar, 17:30tatik aurrera.

Ereserki Berriaren bila arituko dira. Sarrerek 7 euroko kostua izango dute.

Milagrosa kapera, 19:00tan.

ASTELEHENA 15

LASARTE-ORIA Festa

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak antolatuta, Multikultur Fest ekitaldiari hasiera emango zaio. Europa da asteleheneko gaia. Euskal mitologiaren kondairak eta Bulgariako abestiekin eta gozogintzarekin gozatuko dute.

Jaizkibel plaza, 16:45ean.

ASTIGARRAGA Festa

Astigarragan San Isidro eguna ospatuko dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute herriko zenbait puntutan. Zamalbide auzo elkarteak antolatuta prozesioa, meza, bertsolariak, bazkaria eta herri kirolak antolatu dituzte. Foru plazan, berriz, trikitilariak, prozesioa, herri kirolak, bazkaria eta omenaldia egongo dira.

Herriko zenbait puntutan, egun osoan zehar.

ASTEARTEA 16

LASARTE-ORIA Festa

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak antolatuta, Multikultur Fest ekitaldiak jarraituko du. Asia da astearteko gaia. Txinako abesti, jolas, ipuin eta gozogintza landuko dituzte.

Jaizkibel plaza, 16:45ean.

ASTEAZKENA 17

LASARTE-ORIA Festa

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak antolatuta, Multikultur Fest ekitaldiak jarraituko du. Amerika da asteazkeneko gaia. Txileko ipuin eta gozogintzarekin eta dantza nikaraguarrekin gozatuko dute. Etorkin batek bere esperientzia partekatuko du beratrutako herritar guztiekin.

Jaizkibel plaza, 16:45ean.

OSTEGUNA 18

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak antolatuta, Multikultur Fest ekitaldiak jarraituko du. Afrika da osteguneko gaia. Marokoko abesti, ipuin, jolas eta gastronomiarekin gozatuko dute bertaratutakoek.

Jaizkibel plaza, 16:45ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Igelen Erresuma

Igandea: 17:00.

El Bar

Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Un Italiano en Noruega

Larunbata: 19:30, 22:00.

Igandea: 19:30, Astelehena: 19:30, 22:00

USURBIL

URBIL

Alien: Covenant

Ostirala: 17:00, 18:10, 19:35, 20:45, 22:10, 23:30, 00:45. Larunbata: 17:00,

18:10, 19:35, 20:45, 22:10, 23:30, 00:45. Igandea: 17:00, 18:10, 19:35, 20:45, 22:10.

El Bebe Jefazo

Ostirala: 16:00, 18:00, 19:00. Larunbata: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00. Igandea: 16:00, 18:00, 19:00.

El círculo

Ostirala: 16:00, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40, 00:45.

Larunbata: 16:00, 17:55, 20:10, 22:25, 00:40, 00:45.

Fast & Furious 8

Ostirala: 16:15,

19:25, 22:05. Larunbata: 19:25, 22:05. Igandea: 19:25, 22:05.

Guardianes de la Galaxia vol. 2

Ostirala: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00, 00:45. Larunbata: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00, 00:45. Igandea: 16:00, 18:45, 20:00, 22:00.

Nunca digas su nombre

Ostirala: 20:10, 22:45, 00:50. Larunbata: 20:10, 22:45, 00:50.

Plan de fuga

Ostirala: 15:45, 22:15, 00:30. Larunbata: 15:45,

22:15, 00:30. Igandea: 15:45, 22:15

Richard, La cigüeña


Ostirala: 16:10, 18:15. Larunbata: 16:10, 18:15. Igandea: 16:10, 18:15.

Un italiano en Noruega

Ostirala: 15:45, 17:35. Larunbata: 15:45, 17:35. Igandea: 15:45, 17:35.

Z: La ciudad perdida

Ostirala: 21:45, 00:30. Larunbata: 21:45, 00:30. Igandea: 19:00, 21:45



LABURPENA

Igelen Erresuma

Zuz.: Melanie Simka, Nelson Shin. **Herr.:** AEB (2015). **Gidoia:** Melanie Simka, Mychal Simka. **Aktoreak:** Bella Thorne, Cameron Dallas, Rob Schneider, Drake Bell, Keith David. **Iraupena:** 87 minutu

Igelen olinpiadak


Igelen erregeak jakitera ematen duenean 'Igelo-olinpiaden' irabazleak bere alabaren eskua irabaziko duela, printzesak alde egitea erabakiko du. Herritar xumea balitz bezala jantzi eta saltzaile ibiltari baten, Mecharen, laguna egiten da. Berarekin entrenatzen hasten da, jokoak irabazteko asmoarekin, eta bere aitaren ezkontza planak zapuztu nahian. Bitartean, suge maltzur batek 'Igelo-olinpiadak' izorratzeko asmoa du, bere lagun Begibakar Kapitainarekin batera,

erresuma bereganatzeko asmoz. Mecha eta printzesa estatu kolpea zapuzten saiatuko dira.

Animaziozko film txinatar batean oinarritutako lana plazaratu zuten Melanie Simkak eta Nelson Shinek 2015ean. Manuel Lekuona kultur etxean euskaratuta ikusi ahal izango da filma.

Bella Thorne aktoreak jarri dio ahotsa igelen printzesari. Disney etxeko Shake It Up telesailan CeCe Jones pertsonaia Nagusia interpretatzeagatik lortu zuen ospea aktore gazteak.

KOMIKIA



Mari-Teilatuko

Ipuin kontaketa eta tailerra

Maiatzak 16, asteartea, 17:30ean Mirentxuenean

Ttakun 1991-2019

Izena eman Ttakunen bulegoan, 943 37 14 48 zenbakian edota aisia@ttakun.eus helbidean